



STEILAS ERKIDEGOKO UNIBERTSITATEZ KANPOKO IRAKASKUNTZAN SINDIKATU BOZKATUENA IZAN DA.

Atzo, martxoak 26, hezkuntza publikoko milaka langileek bozka eman eta ordezkariak sindikala hautatzeko aukera izan zuten. STEILASek bere poztasuna adierazi nahi du lortutako emaitzengatik, duela lau urteko emaitzak berrestez gain gairitu egin ditugulako.

Irakasle funtzionarioen sektorean 2015ean baina zortzi delegatu gehiago lortu ditugu. Lan legezko irakasle eta hezitzaileetan lau ordezkari gehiago. EHUri dagokionez, mantendu egin gara AZPetan, eta irakasle eta ikerlarietan, hirugarren indarra izatetik bigarrenera izatera pasa gara. Azkenik baina ez azken, Gipuzkoako Haurreskolak Partzuergoan ia bost puntu igo da gure ordezkariak.

Beraz, zorionak denei lortu ditugun emaitzengatik zuek ere gure arrakastaren parte zarete eta. Eskerrik asko, administrazioak erraztasunak jarri ez baditu ere, hauteskunde prozesuan parte hartu duzuen guztioi, baita ikastetxetan erraztasunak jarri dituzuenoi. Orokorrean mila esker lau urte hauetan gure bidelagun izan zareten afiliatu eta liberatuei.

Urte korapilatsuak izan badira ere, mobilizazioetara jo behar izan dugunean prestu egon zarete eta argi utzi duzue gure hezkuntza komunitatea osasuntsua eta indartsua dela. Zuen indarrari esker lortu dugu negoziarako ahots sendoa izatea, eta ondorioz, lan baldintzen eta hezkuntza kalitatearen onura ekarri duten hainbat aurre akordio sinatu ditugu.

Hezkuntzaren publikotasuna eta doakotasuna defendatu ditugu, hezkuntza dagokion gizararen kohesio tresna izaten jarri dezan. Horregatik hain zuzen ere, gure herrian dugun hezkuntza sistema duala salatu dugu, baita honen ondorio den segregazio eta zerbitzu publikoen estigmatizazioa ere. Erronka argia dugu, gure hezkuntza sistema publikatuko duen ibilbideari ekin behar diogu, eta hau sostengatuko duen hezkuntza publikorako finantzaketa lege bat behar dugu ezinbestean.

Zuen bozkaren bitartez gure helburuetan berresten gaituzue. Beraz, zuen mezua entzun ondoren gu ere indarberiturik gaude tinko ekiteko Euskal Eskola Publiko feminista, euskaldun, inklusibo, integral, doakoa eta unibertsala lortu arte.

2019ko martxoaren 27a

www.steilas.eus

Araba ☎ 945 14 11 04
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus